



"EUROPARA BEGIRA GAUDE, BAINA ALTERNATIBAK ETXEAN ERAIKI BEHAR DITUGU"

Europar Batasunaren eta Hego Amerikako Mercosur bloke ekonomikoaren arteko ituna airean dago oraingoz, baina baserritarrek kezka bizi dute etorri daitekeena. Alazne Intxauspe ortuari-ekoizleak eta Aitor Urien gaztagileak alternatibak sortzera deitu dute, elikadura subiranotasunari etxetik ekitera. / 2-3

Eskualdeko ekoizleen traktoreak
Abadiñon, joan zen astean, Bilbon
protestan joan aurretik.

**Ekitaldia Eitzagan,
zabortegia amildu eta
hondamendia gertatu
zeneko seigarren
urteurrenean** / 11

**Landakoko osasun
zentroa, txerto
iraungien
gorabeherarik gehien
izan dutenen artean** / 5



BIZI maristak

BATXILERGOA

ATE

IREKIAK

Otsailak 11

17:30ean

946810058 www.maristak.com



Mercosurren itunak kezkatuta

Baserritarrak kexu dira, itunak lehia "bidegabea" eragin eta ingurumena eta elikadura kaltetuko lituzkeelako

Ekaitz Herrera BASERRITARRAK

Europar Batasunaren eta Hego Amerika-ko Mercosur bloke ekonomikoaren arteko akordioak kezka eta haserrea eragin ditu Durangaldeko eta Euskal Herriko lehen sektoreko langileengan. Ituna munduko merkataritza akordiorik handienetarikoa izateko jaio zen mende hasieran, eta han-

dik hogeitaz urtera behin betiko itxura hartu du. 700 milioi herritarri begirako merkataritza ituna da, elikagaien komertzioa erdigunean ipintzen duena. Haren defendatzaileek diote ituna giltzarria eta estrategikoa dela Europarentzat; besteak beste, AEBen eta Txinaren nagusitasunari aurre egiten lagunduko lukeelako. Alabaina,

ahots kritikoei diote—baserritarrak buru— itunak Hego Amerikako produktuen "lehia bidegabea" ekarriko lukeela, eta ingurumena eta Amazonia babesik barik utziko lituzkeela. Horrez gainera, herritarren elikadura osasuna ere kaltetuko litzatekeela diote. Hala ere, ituna airean dago oraindino. Europako Parlamentuak hi-

tzarmena atzeratzea adostu du, eta txosten juridikoa eskatu dio Europako Justizia Auzitegiari. Erabaki horrek urte bi inguru luzatu dezake prozesua, eta itunaren etorkizuna zalantzan utzi.

Joan zen astean, gure eskualdeko baserritarrek Bilboko kaleetara eraman zuten protesta. Dozena bat traktorek Abadiño, Iurreta eta Zornotza zeharkatu zituzten; handik, Bizkaiko gainerako baserritarrekin batera manifestazioa egin zuten. Kezka etxe barruan dagoela ikusita, ANBOTO eskualdeko ekoizle bigaz batu da. Alazne Intxauspe ortuari-ekoizle iurretarragaz eta Aitor Urien gaztagile abadiñarragaz.



"Elikadura osasuntsurako eskubidea galtzen gabilta"

ALAZNE INTXAUSPE

IURRETAKO ORTUARI-EKOIZLEA

Zelan bizi duzu Mercosurren auzia?

Kezkaz eta esperantzaz, aldi berean. Kezkaz, itun honek hogeitaz urte baino gehiago daramatzalako bueltaka eta etorkizuna jokoan dagoelako. Eta esperantzaz, hogeitaz urtean ezer itxi ez delako, eta hori mugimendu sozialen presioari eskerrak delako.

Itunak zelan eragingo luke?

Akordioak ordezkapen bat egingo luke. Hau da, industria handiek, kapitalak, baserritar txiki eta ertainen ekoizpena ordezkatu lukete, eta hura kolokan ipini. Horrez gainera, elikadura osasuntsua, ekoizpen osasuntsua eta tokiko ekoizpena arriskuan ipintzen ditu. Azken finean, ekoizle zein herritar lege dugu arriskua. Eta, hala eta guztiz ere, ituna mesedegarria dela dioskue.

Kritiketariko bat da Mercosurreko produktuek Europak onartzen ez dituen substantziak izan ditzaketela.

Trazabilitatea zailtzen du, hau da, produktuaren jarraipena egitea. Zaildu egiten du produktu hori nongoa den jakitea, nola hazi den eta zelan garatu den jakitea, eta, horrenbestez, zer jaten dugun jakitea. Brasilek berak onartu du ez daukala gaitasunik trazabilitate hori egiteko. Bestalde, kontuak ez du guran bakarrik eragina. Itunak Hego Amerikako baserritar txikiak eta ertainak ere kaltetzen ditu. Izan ere, ekoizpen eredu handia da honen guztiaren atzean dagoena, ekoizpen industrialia. Eta gauza bera gertatzen da Europatik kanpora eramaten diren produktuekin. Elikadura osasuntsurako eskubidea galtzen gabilta, eta horregaitik diogu elikadurak Munduko Merkataritza Erakundetik kanpora egon behar duela. Ezin da negoziotik izan, eskubidea delako.

Beste kritika batek dio itunak lehia bidegabea ekarriko liokeela hemengo ekoizleari.

Hemen nekazaritza txiki eta ertaina egiten dugu, eta horrek esan gura du gureak balio erantsia duela: kalitatea. Guk ez dugu merke eta asko ekoizten, horrek kalitatea galtzea ekarriko liokeelako. Gure eredu elikadura burujabetza da; bertako ekonomia justua izatea, bai eroslearentzat bai ekoizlearentzat. Eta kalitatezko produktua izatea zure osasunerako, ingurugirorako eta bertako ekonomiarako. Itun horrek kontrakoa dakar, hain justu ere. Korporazioak daude ekoizpen industrial handien atzean, inbertsio funtsak, eta gatz da horiei aurre egitea, dena prekarizatzen dutelako. Behin txikiak desagertuta, merkatu osoaren jabe egiten dira, eta ikusten da produktuak ez direla merkeagoak eroslearentzat. Arrautzekin ikusi dugu hori. Monopolioa hartu eta gura duten prezioa ipintzen dute. Eta, jakina, prezio horrek ez du esan gura produktua kalitatezkoa denik.



"Europara begira gaude, baina alternatibak etxean hasi behar dira"

AITOR URIEN

ABADIÑOKO GAZTAGILEA

Akordioak zer eragin ekarriko lukeela uste duzu?

Honek guzti honek oso txarto amaitu dezake. Elikagai piloa etorriko litzateke kanpotik. Berdura, gazta zein beste edozer. Baina batez ere okelan igarriko litzateke eragina, *boom* handi bat ekarriko luke. Izan ere, hemengo okela ekoizpena ez da ezer Hego Amerikakoagaz alderatuta. Atera kontuak: gaur egun ezin dugu Euskal Herria bertako okelagaz bakarrik elikatu. Triste da, baina horrela da. Gero, jende bat prezio merkeei begira dago, ez dio gainerakoak inporta. Eta beste jende bat okela erosi ezinda dago. Eta, jakina, guri hemen ipintzen dizkiguten betebeharrak ekonomiko, burokratiko eta sanitarioak ez dira Mercosurren existitzen. Ez dizkiete irizpide horiek eskatuko. Horrenbestez, haiek merkeago saldu ahal izango dute, eta horren eraginez geroago eta gehiago ekoiztu. Azkenean monopolio bat sortuko da eta gura duten prezioa ipini ahal izango dute. Handia denak handitzen jarraituko du, txikien kaltetan.

Akordioak zelan eragingo lioke zure gaztagintzari?

Nik hemen saltzen dut produktua. Herrian, eskualdean, eta asko jota Bizkaian. Publiko fidela dut, eta iruditzen zait jendeak nire gazta erosten duela eredu horretan sinesten duelako. Beti ahalegindu naiz publiko mota hori bilatzen. Izan ere, gazta oso produktu pertsonala da, *autore* produktua zelanbait esateko. Eta salmenta ere horrelakoa da nire kasuan, *autore* salmenta. Horrenbestez, ez dut uste akordioak askorik eragingo lidakeenik. Hala ere, kezka handia dago esportatzen diren elikagaietan.

Zein da alternatiba?

Esango nuke gaur egun egin daitekeen gauzarik onena kontzientzia sortzea dela gure gizartean. Nigandik hasita. Zugandik hasita. Ni tokikoa erostera joanda eta zu ere tokikoa erostera joanda. Bertako produktuak kontsumitu behar ditugu. Izan ere, kalitatezko produktuak ekoizten ditugu, bitartekaririk barik. Gainera, elikadura-subiranotasuna oso garrantzitsua da etorkizuneko Euskal Herriarentzat.

Abadiñoako azoka egonkortu egin da hile bakoitzeko bigarren domekan.

Esperientzia esportagarria izan daiteke beste herri batzuetarako?

Jende fidel asko dago eta horrek egundoko poza ematen du. Ekoizleak elkartu egin gara herri batean, auzo batean, ondo saltzen dugu eta ikusten dugu herritarrak pozik daudela. Herria bizi-bizirik dago, tokiko produktuak erosten dituzte eta herritarrek eskerrak ematen dizkigute askotan. Denok pozik! Eta horixe da, hain zuzen ere, Euskal Herri osoan lortu behar duguna. Mikro mailako esperientzietatik hasi eta makrora joatea. Europara begira gaude, baina iruditzen zait alternatiba hemen hasi behar dela. Gero ere joango gara kanpora. Baina, lehenengo, hasi gaitezen hemen.

Mercosurren arteko akordioaren eragina lehen sektorean

%4,2

Langile kopurua lehen sektorean

Europar Batasuneko enplegatuen %4,2k nekazaritzan, abeltzaintzan, ehizan edo horri loturiko zerbitzuetan lan egiten dute. Kolektibo “zaugarria” izanik, baserritarrak kexu dira itunak geroago eta lanpostu gehiago galtzea eragingo lukeelako.



%58

Mercosurreko behi okela European

Via Campesinaren esanetan, Europar Batasunak inportatutako behi okelarik gehiena Mercosurreko herrialdeetatik dator, % 58. Horrenbestez, baserritarrek uste dute kuotak handitzeak inportazio “masiboak” ekarriko lituzkeela.



Substantziak

Via Campesinak esan du Mercosurreko nekazaritza-ustategi industrialetako produktuek European debekatutako substantziak dituztela. Horien artean, “pestizidak, hormonatutako okela eta produktuen hazkundera bizkortzeko potentziatzaileak” daude. Produktuen jatorriari eta prozesuei buruzko “kontrol falta” handituko dela esan dute.

Durangaldeko eta Euskal Herriko baserritarrek ahotsa altxatu dute Europar Batasunaren eta Mercosurren arteko akordioaren kontra, eta ildo berean berba egin du Via Campesinak ere, elikadura subiranotasunaren aldeko eta ekoizle txikien zein ertainen nazioarteko mugimenduak (EHNE mugimendu horren parte da).

Eragile horien guztien esanetan, itunak “lehiakortasun desleiala” eragingo luke, eta “mehatxupean” ipini egungo eredu agroekologikoa. Hori horrela, “premiazo neurriak” eskatu dituzte “ekoizpen kostuen azpitik dauden nekazaritza produktuak erostea debekatzeko”.

Lanpostuen galera

2005etik 2020ra nekazaritza lanpostuen %36 galdu dira Europar Batasunean. Lanaldi osoko 4,5 milioi lanpostu, guztira. Via Campesinak esan du ekoizle txikiak izan zirela sektoreko kiderik kaltetuenak.



4,5 milioi lanpostu

%36



57 urte

batez besteko adina

Sektoreko langileen batez besteko adina.

Via Campesina baserritarren nazioarteko mugimenduak dioenez, “gazteriak ez du nekazaritzan jardun gura”. Horren erakusgarri da, hain zuzen ere, langileen batez besteko adina: 57 urte. Ituna sinatzen bada, “belaunaldi erreleboa ezingo da sekula ere bermatu”.



"Funtsezkoa da zientzian emakume erreferenteak sortzea"

Durangoko 20 komertziok emakume zientzialariei buruzko informazio panelak ipini dituzte ikusgai, otsailaren 11gaz bat egin eta emakume zientzialarien lana aitortzeko. Horien artean zientzialari durangar baten izena ageri da, Mari Luz Guenagarena

Ekaitz Herrera DURANGO

Egitasmoak otsailaren 11gaz bat egiten du, Emakume Zientzialarien Nazioarteko Egunagaz. Dendak Baiko establezimenduek, Durangoko Udalak eta Elhuyarrek sortu dute egitasmoa, emakume zientzialarien lana aitortzeko eta hori ikusgarri egiteko.

Ingeniaritza informatikoko doktore zara. Zein da zure lana?

Deustuko Unibertsitateko Ingeniaritza Fakultateko irakaslea eta ikerlaria naiz, eta gaur egun Erakunde Harremanetako eta Komunikazioko dekanordea. Lehen mailako ikasleekin lan egiten dut, etorkizuneko ingeniariak hezten. Bestalde, ikerketaren arloan, pentsamendu konputazionala gazteengan zelan garatzen den aztertzen dut, baita STEAM hezkuntza-programek duten eragina ere. Horrez gainera, egunerokoa ahalegin berezia egiten dut zientziagazko eta teknologia-gazko interesa pizteko, batez ere nesken artean. Funtsezkoa da



Mari Luz Guenaga.

erreferenteak sortzea eta estereotipoak apurtzea.

Otsailaren 11 Emakume eta Neska Zientzialarien Nazioarteko Eguna da. Zelan ikusten dituzu halako egunak?

Ezinbestekoak dira, gizarte modura oraindino konpondu barik dugun erronka bat mahai gainean

ipintzen dutelako. Egutegian data hauek kokatzeak aukera ematen digu ikusarazteko emakumeek eta neskek zientzian duten presentzia ez dela oraindino bidezkoa, eta horretan lanean jarraitu behar dugula. Hala ere, oso argi dut aldaketa ez dela egun bakar batean

gertatzen. Urte osoko lana behar du; hezkuntzan, erreferenteak sortzen, jarrerak zaintzen eta keinu txikietan aukera berdintasuna bermatzen.

Inoiz sentitu duzu ez zaituztela aintzat hartu zientzialari emakumea izatea-gaitik?

Bai, inoiz izan dut halako sentsazioa. Batzuetan pentsatu izan dut gizona izan banintz ziurrenik serioago hartuko nindutela, nire iritzia arreta handiagoa eskainiko ziotela edo nire erabakiak gutxiago ipiniko zirela zalantzan. Ez dira beti egoera agerikoak edo esplizituak izaten, askotan oso sotilak dira. Horregaitik da hain garrantzitsua egoera horiek identifikatzea eta kontzientzia lantzea.

Zein erronka dago aurretik?

Gure lana hor dago, baina ez da behar adina aitortzen edo behar den moduan kontatzen. Emakumeen presentzia zientzian, teknologian eta ardurazko postuetan normalizatzea ezinbesteko pausoa da aukera berdintasuna benetakoa izan dadin.

Erronka horiek aldatu egiten dira zientzia esparruaren arabera?

Sektore industrialetan maskulinizazioa askoz ere handiagoa da, eta horrek emakumeentzat lan

ingurune gatzagoak sortzen ditu batzuetan. Horrek eragin zuzena du sartzeko aukeretan eta ibilbidea garatzeko moduan. Ikerketaren esparruan ere badaude berezitasunak: ibilbide profesionalaren logikak hartu-emanak, helburuak eta lan dinamikak baldintzatzen ditu, eta ez da beti lankidetzara saritzen. Uste dut beharrezkoa dela arrakastaren kontzeptua berrikustea. Produktibitateagaz, diruagaz edo boteareagaz lotu barik, eraikuntza sozial hori deseraiki eta ikuspegi zabalago eta humanistago bat proposatu beharko genuke.

Zer iruditu zaizu Durangoko dendetan egiten ari diren kanpaina?

Ohore handia da kanpainaren parte izatea. Egia esanda, poz handiz hartu nuen proposamena. Elhuyarregaz hartu-eman estua dut aspaldidanik. Urte asko daramatzagu elkar ezagutzen, elkarlanean, eta, horregaitik, ilusio bereziz hartu nuen deia. Horrelako ekimenek zientzia gizartera hurbiltzeko eta erreferenteak ikusarazteko balio dute.

Zer esango zenieke zientzia arloren batean lan egin gura dutenei?

Esango nieke zientziaren eta teknologiaren arloak benetan liluragarriak direla: erronkaz beterik daude, etengabe ikasten da. Gainera, gizartearentzat oso beharrezkoak eta garrantzitsuak diren esparruak dira. Jakin-mina badute eta gauzak hobetu gura badituzte, bide horiek aukera paregabea eskaintzen dute.

Sinadura bilketa jolas libreko gunea lekualdatzea eskatzeko

400 durangarrek zerbitzua "ahal den guztietan" modulu handiago batean eskaini dadin eskatu dute

Ekaitz Herrera DURANGO

Durangoko guraso talde batek sinadura bilketa egin du Landako Guneko jolaslekuaren harira. Kexu dira, euren esanetan aurreko aldietan baino leku gutxiago eta jolas gutxiago dagoelako, eta eremuari eskainitako edukiera handiegia delako. "Zerbitzua bigarren moduluan eskaintzen zenean, 300 bat laguntzat zegoen lekua. Baina jolaslekua hirugarren modulura eraman dute, leku nabarmen txikiago batera. Hori bai, edukiera mantendu dute, 290 pertsonakoa", azaldu du Nerea



Jolas libreko gunea. DURANGOKO UDALA

Elxpe ama durangarrak. Guraso taldeko kideek esan dute kokaleku berriak "deserosotasuna eta segurtasun arazoak" sortzen dituela, "txikienentzat batez ere". Hori dela eta, guraso taldeak sinadura bilketa egin du udalari "errekamazio orri bateratua" aurkezteko. 400 herritarrek baino gehiagok bat egin dute kanpainagaz. Jolas libreko gunea "ahal den guztietan" modulu handiago batean atondu dezaten eskatu gura diote udalari, lehenengo moduluan edo bigarrean.

Durangoko Udalak urtarrilaren 19an ipini zuen martxan jolas libreko gunea. Landako Guneko hirugarren moduluan atondu zuen. 16:15etik 20:00etara dago zabalik, egunero, maiatzaren 17ra bitartean. Zerbitzua etenda egongo da 40 Minutu Rock eta Bonus-track jaialdien bueltako egunetan.

Otsailean zehar 27 zuhaitz landatuko dituzte Durangon

E.H. DURANGO

Durangoko Udalak 27 arbola landatuko ditu herriko hainbat kokalekutan. Horietariko 20 kale hauetan ipiniko dituzte: Alluitz kalean, Sasikoan, Askatasun Etorbidean, Ollerian, Faustebekoan, San Rokebiden, Landako etorbidean, Juan Itziarren, Ibaizabalen, Urko kalean eta Agirre Lehendakaria kalean. Bestalde, beste hiru zuhaitz Landako Eskolaren barruan landatuko dituzte, eta beste bina Intxaurrondoko haur parkean eta Gasteiz bidean. Udalak otsailean zehar egin gura ditu landaketak. Esku hartzeak 5.800 euroko aurrekontua izango du.

Surrandietarako maskara tailerra, zapatuan, Durangon

E.H. DURANGO

Inauteriak ate joka daude eta Kriskitin dantza taldea kalera irtengo da aurten ere, surrandiak eta hartza lagun. Hitzordua prestatzeko, tailerra antolatu dute, bertan maskara sudur luzeak egiteko. Zapatuan egingo dute jardunaldia, otsailak 7, dantza taldearen lokalean, 17:00etatik 19:00etara. Dantza taldeko kideentzat bakarrik barik, egitasmoa herritar ororentzat zabalik dagoela jakinarazi dute.

Behin maskarak prestatuta, dantzariak eta Durangoko inauteri zaleak kalera irtengo dira datorren zapatuan, hilak 14, herritarrek zirikatzen.

Landakoko osasun zentroa txerto iraungien zerrendan

Osasun Sailak dio Durangoko anbulatorioa gorabeherarik gehien izan duten zentroen artean dagoela

Jone Guenetxea DURANGO

Alberto Martinez Osasun sailburuak txerto iraungien auzia eguneratu du asteon, eta jakinarazi du iraungitako dosietariko batzuk Landakoko osasun zentroan ipini zirela. Osakidetza

ez du zehaztu zenbat izan ziren eta zein adin tartetan ipini ziren, baina, edozelan ere, azpimarraz dute kasuak "bakan batzuk" izan zirela eta egoera "bideratuta" dagoela. Osakidetza esan du auziak Euskadiko 12 ESiri edo

osasun barrutiri eragingo ziela, baina, "berrikuspen xehatuak" egin eta gero, kasuak "bakan batzuk" direla ondorioztatu dute, eta horiek "zentro jakin batzuetan" gertatu zirela. Martinez sailburuak hor kokatu zuen Landakoko anbulatorioa, Iztieta (Errenteria), Ondarretako (Donostia), San Migeleko (Basauri) eta Usurbilgo osasun zentroekin batera. "Esan dezakegu egoera aldatu egin dela, kasuen kopurua eta hasierako dispartzioa murriztu egin direla, eta osasun



Alberto Martinez sailburua. IREKIA

gorabehera bideratuta dagoela", adierazi du sailburuak. Halaber, asteon 23 euskal herritar txertatu dituzte berriro ere txerto hexabelenteagaz. Era berean, kontrastatze lanak egiten dabiltza beste 29 herritarregaz. "Horrek ez du esan gura denei txertoa ipini behar zaie berritxo, kasu askotan erregistro informatikoak akatsak dira eta", azaldu du Osasun Sailak. Sailburuak gaineratu du ez dela epaitzeko unea, "erantzukizunak eta lankidetzaz agertzekoa baino".

Berbaroren Hirukoa lehiaketa, arratsalde honetan, Plateruenean

Saioa 19:30ean hasiko da. Lehiakideek galdererantzunen jokoak eta sari eder bat izango dituzte zain



Iazko Hirukoa. BERBARO

Ekaitz Herrera DURANGO

Gaurko arratsaldean Plateruenean doan tarte eder bat igarotzeko aukera izango du, Berbarok Hirukoa lehiaketaren edizio berria antolatu du eta, zazpigarrena. 19:30ean hasita, talde lehiakideek galdererantzunen jokoak eta askotariko probak gaitzitu beharko dituzte telebistako saioen antzera. Elkartek azaldu du hirukoteka jokatu beharko dela, eta 20 talderentzako lekua egongo dela gehienez. Izen emateak Berbaroren web orrian egin behar dira.

LABUR-LABUR

Hilerriko seinaleak euskaratu dituzte

Durango Udalak kanposantuko seinaleak berriztu ditu. Gaztelaniaz zeuden plakak ele bitan ipini ditu. Horrez gainera, planoak ipini dituzte hilerriko kokalekuen berri emateko. Udalak 2.290 euroko inbertsioa egin du.

Turistak gustura Durango

Durango Turismo Bulegoak 20.031 bisitari hartu zituen iaz, 2024an baino %1,1 gehiago. Gaudie dagokien ere, datuek gora egin zuten: 40.226 loaldi erregistratu zituzten (%0,17ko igoera). Bisitaririk gehienak estatu espainiarrekoak izan ziren.

Kargagailu elektrikoa udaltzaingoarentzat

Durango udaltzaingoak gune bat gehiago izango du bere auto elektrikoak kargatzeko. Udalak beste kargagune bat ipiniko du San Agustinalden, orain artekoen ondoan.

NAN agiria berrizteko hitzorduak

Espainiako poliziaren bulego mugikorra Ezkurdin egongo da martxoaren 5ean, 18an, eta apirilaren 22an. Durangarrek NAN agiria eta pasaporteak berriztu ahaliko dituzte han, aurretiaz hitzordua eskatuta.



PAULE CAMPAÑÓN MUÑOZ | 20 URTE | DURANGO | INGENIARITZA MEKANIKOA | 3.MAILA



Mondragon Unibertsitatea

Definitu apur bat zure burua: non egin dituzu orain arteko ikasketak? Baduzu hobby edo zaletasunik?

Paule Campaño naiz, durangarra, eta Ingeniaritza Mekanikoko Gradu hirugarren maila ikasten ari naiz. Aurretik egindako ikasketak Lauaxeta Ikastolan burutu nituen. Pertsona soziala naizela uste dut, eta talde-lanean aritzea gustuko dut.

Zergatik aukeratu zenuen Ingeniaritza Mekanikoa gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?

Ingeniaritza Mekanikoko gradua aukeratu nuen betidanik gauzak nola funtzionatzaren duten ulertzeko kuriositatea izan dudala eta arazoei irtenbide praktikoa bilatzea gustuko dudalako. Mondragon Unibertsitatea aukeratu nuen, eta ikasketa-pro-

zesua praktikoa eta parte-hartzailea dela sentitu nuen lehen momentutik.

Nola balioetsiko zenuke orain arte bizitako esperientzia?

Orain arte bizitako esperientzia aberasgarria izan da, bereziki prestakuntza teknikoari dagokionez. Ikasketetan zehar balio eta gaitasun tekniko ugari gertatu ditut. Ikaskuntza-metodo praktikoa eta proiektuetan oinarrituari esker, ikasitakoa egoera errealean aplikatu izan dut.

Nola definituko zenuke Mondragon Goi Eskola Politeknikoan jasotzen duzun ikasteko metodologia?

Ingeniaritza Fakultatean jasotzen dugun ikasteko metodologia praktikoa, proiektuetan oinarritua eta lankidetzazkoa dela esango nuke. Ikaslea ikaskuntza-prozesuaren erdigunean jartzen du, teoria eta praktika etengabe uztartuz. Horri esker, autonomia eta erantzukizuna garatzen dira. **Unibertsitateak zer da gehien gusatzzen zaizuna? Eta zerbait hobetzeko?**

Unibertsitatean gehien baloratzen dudana ikasleari eskaintzen zaizkion baliabideak eta aukerak dira, bai prestakuntza akademikorako bai etorkizun profesionalerako. Hobetzeko alderdi gisa, zenbait unetan lanaren banaketa eta epeko hobeto koordinatu litezkeela uste dut.

Lanean ari zara ikasten duzun bitartean, Dual eredu. Non ari zara jardunean eta zer lan mota egiten duzu?

Soraluce enpresan ari naiz lanean, kalitate sailean. Nire jarduna enpresako intzidentzien kudeaketara etaekoizpen-prozesuaren portaeraren azterketara bideratuta dago. Lan horren bidez, kalitatea ikuspegi global batetik lantzen dut, datuetan oinarritutako erabakiak hartuz eta hobekuntza jarraitua sustatuz.

Zer-nolako ekarpena egiten dizu eredu dualak?

Lan-ingurune erreal batean aritzeak ardurak hartzea, erabakiak hartzea eta autonomia garatzera behartu nau. Aldi berean, profesional desberdinekin lan egiteak komunikazioa eta moldagarritasuna lantzen lagundu dit. Esperientzia honek pertsona zein etorkizuneko profesional gisa hazten lagundu dit.

Etorkizunari buruz zeintzuk dira zure asmoak?

Lan-munduan lehen urratsak emateak erakutsi dit bertan jarraitzeko gogoia dudala. Ikasten jarraitzea eta etorkizunean master bat egitea aukera egokiak direla iruditzen zait. Uste dut lan-esperientziaren eta prestakuntza akademikoaren arteko oreka funtsezkoa dela.

Iriondori buruzko jardunaldiak Zornotzan

Santiago Onaindia bekaren inguruan antolatzen diren jardunaldiek Lourdes Iriondo artista gipuzkoarraren figura izango dute ardatz; besteak beste, Alex Gurrutxagaren eta Lorea Jainagaren 'Lourdes Iriondo, bide-urraztaile' ikerketa aurkeztuko dute

A. M. ZORNOTZA

Zornotzako Udalak ikerketa literarioa bultzatzen duen Santiago Onaindia bekari loturiko jardunaldiak antolatu ditu. Aurtengo jardunaldiek Lourdes Iriondo artista gipuzkoarraren figura izango dute ardatz. Hain zuzen ere, XVIII. edizioko bekaren lan saritua izango da protagonista, Alex Gurrutxagaren eta Lorea Jainagaren *Lourdes Iriondo, bide-urraztaile. Literatura eta kantagintza* ikerketa. Lanak Iriondoren lanaren garrantzia nabarmentzen du. "Euskal musika modernoaren aitzindarietarikoa bat izan zen eta diktadura garaian euskarazko haur literaturako lehenengo egileetarikoa bat. Ikuspegi feminista eta kulturala erabilita, lanak Iriondoren ibilbidea berreskuratzen du, eta emakume sortzaileentzat eta euskararentzat garai historiko gogor batean egindako ekarpena nabarmentzen du", azpimarratu dute antolatzaileek. Hiru ekitaldi nagusi egongo



lazko bekaren irabazleak eta udal ordezkariak.

dira: zapatuan, 4tik 10 urtera arteko umeei zuzenduriko ipuin kontalari musikala egongo da haur liburutegian. Otsailaren 10ean, Alex Gurrutxaga ikerlariak berbaldia emango du Zelaia zentroko auditorioan, 19:00etan. Jardunaldiak borobiltzeko, biha-

ramunean *Lourdes Iriondo, ez gera alferrik pasako* dokumentala proiektatuko dute. Horrez gainera, otsailean Santiago Onaindia bekaren bitartez argitaraturiko liburuekin osatutako erakusketa egongo da ikusgai, Berbalapiko programaren barruan.



Euba.

Bertokoak Berton programak maiatzera arte jarraituko du

Euban, San Migelen, Etxanon eta Boroan hainbat ekitaldi antolatuko dute hurrengo hileetan

A. M. ZORNOTZA

Zornotzako landa auzoetako bizitza kultural eta soziala biziberritzeko helburua duen Bertokoak Berton programaren ekitaldi berriak prestatu ditu Zornotzako Udalak. Maiatzera bitartean, hainbat jarduera egingo dute Euban, San Migelen, Etxanon eta Boroan; besteak beste, mugikorrak argazkiak ateratzen ikasteko tailerra, gyozen dastatzea, propietate terapeutiko edo lasaigarriak dituzten hazi zakuen tailerrak eta bingo partidak. Beste proposamen

berezi bi ere egingo dituzte, gainera. Euban, Mississippi Queen bikoteak kontzertu akustiko berezia emango du martxoaren 14an. Emanaldia 19:00etan izango da, frontoi alboko udal lokalean; blues klasiko handiak joko dituzte. Bestalde, Etxanoko elizan Sergio Arrospidek bakarrik keta emanaldi bat egingo du maiatzaren 16an. Emanaldia 19:00etan izango da. Aktoreak senar, aita eta aktore bizitzari buruzko hausnarketa proposatuko du, ironiaz beterikoa, ohiko duen moduan.

Domekan BBK Mendi Martxen hasiera Berriztik abiatuta

Aurtengo ekimenak zazpi jardunaldi izango dituela iragarri dute. Eskualdean, Berrizen eta Otxandion



Amarauneraren martxa baten irudi bat.

A. M. BERRIZ

Domekan BBK Mendi Martxak ekimenaren edizio berria hasiko da. Hain zuzen ere, Berrizko Amaraune klubak antolatu du lehenengo. Hamabi kilometro pasatzeko ibilbide zirkularra prestatu dute, adin guztietako kideek disfrutatzeko; Martxa 09:00etan irtengo da, Olakueta plazatik, eta lau ordu inguru iraungo du. Berrizen, Portugaleten, Zeanurin, Ortuellan, Barakaldon, Getxon eta Otxandion ere egingo dituzte. Aurten, gainera, antolatzaileak inklusioagaz konpromisoa indartzen ahalegindu dira. "Ibilkiren eta Gauderen lankidetzaz funtsezkoa da berriro ere Mendi Martxak askotariko proiektu irisgarri eta sozialki eraldatzaile legez sendotzeko", azaldu dute antolatzaileek ohar batean.

Elorrioko Udalak landa lurak erosteko lizitazioa abiatu du

"Aukera estrategikoa" da, luzera begira balio handiko ingurumen eremuak babesteko, udalaren berbetan

A. M. ELORRIO

Espezie, baso eta ekosistema autoktonoen kontserbazioa bultzatu guran, Elorrioko Udalak beste urrats bat eman du. Landa lurak erosteko lizitazio prozesua abiatu du, biodibertsitatea babesteko helburuagaz, hain zuzen ere. Udalaren ustez, lur hauek erostea "aukera estrategikoa" da, luzera begira balio handiko ingurumen eremuak babesteko, habitat naturalak sendotzeko eta belaunaldi berriei ingurune osasuntsu eta orekatua bermatzeko; 'Danona 2023-2027'

gobernu planean jasotako neurria zen hori.

Udalaren esanetan, lurren erosketa lizitazio publiko bidez egingo da. Otsailaren 3an Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zuten, eta udalaren webgunean informazio guztia eskuragarri ipini zuten. Interesa duten jabe edo eragileek eskaintzak aurkezteko aukera izango dute, pleguan zehaztutako epe eta baldintzak betez gero. Besteak beste, erosi daitezkeen lurren ezaugarriak eta udalaren irizpideak jasotzen agiri horietan.

GREMIOEN GIDA

 Zurgintza

leike Eraberritzeak
Interiorismoa
Aroztegia

NEURRIRA EGINKO PROIEKTUAK



www.leike.eus
Antso Estegiz, 3 Durango
Tlf: 94 681 72 29

 Zurgintza

ATERPE ARROTZA
EGUR ERAIKUNTZAK
TEILATU ETA BARRUKO LANAK



Asier Abendibar
635 74 84 65
www.carpinteriaaterpe.com

 Dekorazioa

JAIObarnizatuak

Armairu eta era askotariko
altzairuen lakadura eta
guztietako zaharberritzeak
egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45 Garai A - BERRIZ
Tel/Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com

 Elektrizitatea


ELECTRICIDAD JON

622 684 284
electricidadjon@outlook.es

 Iturgintza

Mallabiena

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.



Mallabiena industrigunea, 6
48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862
mallabiena@mallabiena.com

 Iturgintza

 **UNAI
GARAY**
ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA

INSTALATZAILE BAIMENDUA

659 673 790
unaigaray@yahoo.es



Saharako errefuxiatuen aldeko bilketa, martxan

Río de Orok eta Sahararen aldeko gainerako elkarteek 24 tona elikagai bidali gura dituzte Euskal Herriatik Tindufeko kanpalekuetara, urteroko Karabana Solidarioan. Elikagaiak dohaintzan emateko epea otsailaren 13ra arte egongo da zabalik



Bide bi zabaldu dituzte dohaintza ekonomikoak egiteko.

E.H./J.D. DURANGALDEA

Río de Orok, Durangoko Udalgaz elkarlanean, elikagai bilketa bat hasi du saharar herriari laguntzeko. Bilketa otsailaren 13ra arte egongo da martxan, eta, aurten ere, Tindufeko kan-

palekuetan errefuxiatutako sahararrei laguntzeko erabiliko dute baturiko dena. Aurten, Río de Orok eta Karabana Solidarioko gainerako eragileek 24 tona elikagai batzeko erronka jo dute.

Durangoko ikastetxeetan, esaterako, jada prest daude elikagaiak batzeko lekuak. Askotariko produktuak utzi daitezke bertan: lekaleak, arroza, pasta, azukrea, sardinak eta atuna oliotan zein konpresak.

Durungaldeko beste herri askotan ere batuko dituzte elikagaiak. Esaterako, Atxondon hainbat egunez bilgune puntuak egon dira udaletxeko sarreran eta eskolan. Herriarren ekarpenei eskerrak, 30 bat kilo elikagai batu dira eta dagoeneko Karabana Solidarioko parte dira.

Zelan lagundu

Elkarteak dohaintza ekonomikoak jasotzeko bideak ere zabaldu ditu. Modu bitara egin daitezke: Bizum bidez, "Egin dohaintza" aukeran, Río de Oro Durangaldea hautatuta edo 01955 kodea sartuta; eta banku-transferentzia bidez, Laboral Kutxako kontu honetan: ES90 3035 0129 11 1290034483.

Atxondoko Berdintasun Kontseilua otsailaren 10ean

Otsailaren 10ean egingo dute eta herriko emakume guztiei zabalik dago; hainbat gai jorratuko dute bertan

J.D. ATXONDO

Berdintasun Kontseilu Herriarrrak bilera egingo du otsailaren 10ean, 18:00etatik 20:00etara, eskolako eraikin zaharrean. Urteko lehenengo bilera honetan hiru gai landuko dituzte: 2026ko jardueren errepasoa, Martxoak 8 eta Berdintasun Plana.

Berdintasun Kontseilua emakumeen parte hartzerako espazioa da. Bilera hauetan ateak zabalik daude Atxondoko emakume guztientzat, gogoeta egin eta etorkizunean zein norabidetan lan egin erabakitzeko.



Eskolako eraikin zaharra.

Memoria lantzeko ikastaroak Garaiko kultur etxean

E.H. GARAI

Mankomunitateak memoria entrenatzeko ikastaroak emango ditu adinekoentzat Garain. Otsailaren 10ean hasiko dira eta martitzenero izango dira, zortzi astez. Saioak 16:30etik 18:00etara egingo dituzte, kultur etxean. Interesdunek 946 200 546 telefonoan edo nagusia@dma.eus helbide elektronikoan eman dezakete izena.



Garaiko kultur etxea.

Zapatu honetan Santa Ageda koplak abestera irtengo dira Mañarian

Plazan lehenengo koplak abestuko dituzte, auzorik auzo abiatu aurretik. Baturiko dirua Saharako errefuxiatuen kanpamentuetarako izango da, besteak beste

J.D. MAÑARIA

Urteroko ohiturari eutsiz, mañariarrak Santa Ageda koplak abestera irtengo dira zapatu honetan. 08:30ean ipini dute hitzordua, plazan, eta hantxe abestuko dituzte lehenengo koplak auzorik auzo abiatu aurretik. Baturiko dirua bazkaria ordaintzeko eta Saharako errefuxiatuen kanpamentuetara bidaltzeko izango dela aurreratu dute ekimeneko antolatzaileek.



Aurreko edizio bateko argazki bat.

Izurtzan Clown ikastaro berri bat martxoan eta apirilean

Korralla sormen guneko tailerra hasiberrientzat ere aproposa da. Asteon abiatu dute izen ematea

J.D. IZURTZA

Izurtzako Korralla sormen gunek beste clown ikastaro bat antolatu du. Klaseak martxoan eta apirilean izango dira; astean ordu biko klase bat, eguaztenetan 18:30etik 20:30era.

Izen ematea astean zabaldu dute eta korralla@ganso.info helbide elektronikora idatzita egin daiteke (100 euro). Lehenengo egunean dohainik probatu daiteke. Antolatzaileek esan dute esperientzia izatea ez dela derrigorrezkoa parte hartzeko, eta hasiberrientzat ere aproposa dela.



Clown ikastaroko irudi bat.



**KURUTZIAGA
IKASTOLA**

BIZITZEKO HEZI



ESKAINTZA

0 urtetik 18
urtera bitarteko
hezkuntza
eskaintza.



HELBURUAK

Ikasle euskaldun,
kritiko eta
eleanitzak.



ELIKADURA

Jantoki
Eko-Arduratsuen
ziurtagiria.
Bertokoa,
ekologikoa eta
sasoikoa.

Matrikulazio epea:
otsailaren 2tik 13ra

Galtzaretza Kalea, 13 · 48200 Durango, Bizkaia
946 20 08 22 · kurutziagaikastola.eus



**Bisita
indibidualak**

Okm: batzen gaituen distantzia

anbotokide



**OTSAILEKO
ZOKKETAK**



Arriolan, (Elorrio) La Senior de Larua "You have an inner world, so what?" Dantza emanaldirako 2 sarrera. Otsailak 27.



Zelai Hotela (Zumaia): Talaso saioa eta gosaria barne duen birentzako bonua.



Zornotza Aretoa, Golazenen emanaldirako 2 sarrera. 19:00etan Otsailak 14.



Zornotza Aretoa. Zerua lapurtu dute (Porrotx, Marimotots, Pupu eta Lore) saioreko 2 sarrera. Otsailak 13.



Xiberu tabernan (Zornotza) bi gosari bikoitz.

**EGIN ZAITEZ ANBOTOKIDE
ETA PARTE HARTU
GURE ZOKKETETAN!**



Abadiñoako argazki bat. ABADIÑO UDALA

Abadiñarren eskarietariko bat berdeguneak handitzea da

Aurrekontu parte hartzaileen bozketan 372 lagunek parte hartu dute denera, iaz baino %24 pertsona gehiagok

Maialen Zuazubiskar ABADIÑO

Abadiñarrek erabaki dute aurrekontu parte hartzaileetara bideratutako diruagaz zer egin. 120.000 eurora arteko proiektuen artean, udalerriko berdeguneak handitzeko eta bidezidorrak berreskuratzeko proiektua gailendu da. Proiektu honi lotuta, udalak bilera zabal bat egitea aurreikusten du, herritarren iritzia eta ikuspuntua batzeko asmoz.

Bestalde, 1.000 eurotik 15.000 eurora arteko aurrekontua duten proiektuen artean bi nagusi dira: Traña-Matiena eta

Zelaieta arteko errepideko argiak hobetzea eta Traña-Matienatik Astolarainoko bidegorria seguruago bihurtzea.

Udalak jakinarazi duenez, datozen hileetan proiektu horiei ekingo diete. Horiek gauzatu eta gero, aurreikusitako 150.000 euroetatik dirua geratuko balitz, botorik gehien lortu duen hurrengo proiektua aurrera eramatea aztertuko lukete.

Emaitzei dagokienez, denera 372 lagunek parte hartu dute aurrekontuen bozketa fasean, iaz baino %24 gehiagok hain zuzen ere.

Burduntziko Bildots Txapelketa egingo dute bihar Abadiñon

Zapatuan 50 bildots erreko dituzte Abadiñon. 14:00etan hasita, bildots jana egingo dute herriko probalekuan

M.Z. ABADIÑO

Otsailaren 3a joan den arren, San Blas jaiak ez dira amaitu oraindino. Abadiñoako festei behar den moduan amaiera emateko, bihar, otsailak 7, Burduntziko Bildots Txapelketa jokatu da. Aurten goa XXXVI. edizioa izango da, eta, urterro legez, probaleku ondoko karpapean erreko dituzte bildotsak. Txapelketa 9:00etan hasiko da.

Behin txapelketa jokatu eta 50 bildotsak erreta, 14:00etan herri bazkaria egingo dute probalekuan.



lazio txapelketako argazki bat.

Udal landak auzolanean zaintzea arautu dute Abadiñon

Abadiñoako Udalak udal landen erabilera arautzeko ordenantza berri bat onartu berri du

M.Z. ABADIÑO

Udal landen erabilera arautzeko ordenantza berri bat onartu dute Abadiñon. Aurreko legeentzaldian udalak kudeatzen zituen eremu horiek, enpresa baten bitartez, eta ordenantza berri honeguz landak auzolanean zaintzea arautu dute. Lur horien esleipena eskatu gura duten abeltzainek udal bulegoetan egin dezakete hori. "Ordenantza berri honeguz aukera eman gura diegu herritarrei, era ordenatuan udal landa hauek erabili ditzaten. Moldaketa horri eskerrak, enpresari ordaintzen zitzaion dirua baserri auzoetako sasiak garbitzeko erabiltzan da orain: urtean birritan garbitu beharrean, hiru bider garbitzen dira", azaldu du gobernu taldeak. Bestalde, landa guñeak mantentzen laguntzeko asmoz, baserri auzoetan laguntzak emango dituzte tximiniak garbitzeko eta su-itxalgailuak ipintzeko, besteak beste.

Astelehenak bolumen handiko hondakinak batzeko eguna

M.Z. MALLABIA

Mallabiko Udalak jakinarazi du astelehen gauetan emango duela bolumen handiko hondakinak jasotzeko zerbitzua. Altzariak eta bestelako tresnak astelehenetan utzi beharko dira, 20:30etik 21:30era bitartean, hurbilen dauden edukiontzien ondoan. Udalak azaldu duenez, zerbitzu hau erabili gura izanez gero ezinbestekoa da aldez aurretik Debabarrenako Mankomunitateko 943 700 799 zenbakira deitzea, bilketa antolatu eta herritar guztientzat modu egokian funtzionatzeko. Bestalde, produktu toxikoak uztea guztiz debekatu ta dagoela ohartarazi dute.

Ekitaldia Eitzagan, hondamenditik sei urtera

Eitzagako Verter Recycling zabortegia otsailaren 6an amildu zen, orain sei urte. Zaldibar Argitu plataformak elkarretaratzea egingo du domekan, Joaquin Beltran eta Alberto Sololuze beharginak gogoratu eta ikerketak argitzea eskatzeko

Ekaitz Herrera ZALDIBAR

Sei urte joan dira dagoeneko, baina Zaldibarko eta Eitzagako herriarrek ondo gogoan dute gaurko egunez gertaturikoa. Verter Recycling zabortegia amildu, Alberto Sololuze eta Joaquin Beltran langileak lurak harrapatuta geratu, eta Euskal Herriko ingurumen hondamendirik handienetarikoa bat gertatu zenekoa. Hori gogoan, Zaldibar Argituk elkarretaratzea egingo du domeka honetan, Eitzagako plazan. Eta aukera hori aprobetxatuko dute, hain zuzen ere, epaitegietan oraindino zabalik dauden auzibideak amaierara arte ikertu daitezen



Sutea zabortegian, hura amildu eta egun gutxira.

eskatzeko. 12:30ean egingo dute ekitaldia.

Plataformak gogorarazi du epaileak "zuhurtziagabekeriak egindako giza hilketa bi" egotzi zizkiela enpresa arduradunei, eta "21 hilabete" behar izan zituztela homizidio bi horiek ebazteko. Alabaina, Zaldibar Argituk adierazi du beste epaia, ingurumenaren aurkako delituei loturikoa, instrukzio fasean dagoela oraindino, hasi eta sei urtera: "72 hilabete daramatza instrukzio fasean. Epaitegiak sei hilabeteko luzapena ezartzen du sei hilabetero. Zenbat denbora behar dute instrukzioa amaitu eta ondorioak kaleratzeko?", galdetu du plataformak.

Joan zen astean, hirugarren auzibide bat ere martxan zegoela jakin zen. Durangoko epaile batek Arantza Baigorri Zaldibarko alkate ohia eta beste zortzi lagun inputatu zituen, zabortegian ustez prebrikazio urbanistikoa egin zutelakoan. Plataformak salatu du hirugarren auzi horri buruz filtratutako informazioak ez dela hondamendiaren "benetako mamia" argitzen, eta "arreta desbideratzeko" arriskua dagoela.

Udalerri Euskaldunen Eguna Otxandion ospatuko dute

A.B. OTXANDIO

Urte birik behin antolatzen duten Udalerri Euskaldunen Eguna Otxandion ospatuko da aurten. Herri euskaldunen garrantzia nabarmendu gura duen topaketa hau maiatzaren 16an izango da. Udalak eta UEMak egun osoko egitaraua prestatuko dute, Otxandioko eragileekin batera. Gainera, UEMak batzar nagusia egingo du egun horretan.

"Arnasguneek eta udalerri euskaldunek euskararen biziberritzeari egindako ekarpena ikusaraztea eta euskararen lur-gunea babesteko eta sendotzeko premia nabarmentzea da asmo nagusia, festa eta aldarrikapena uztartuta", aurreratu dute.

19 herritarrek ortu ludikoak landatuko dituzte lurretan

A.B. IURRETA

Udalak Iurretako Iturburuko ortu ludiko guztiak banatu ditu. Hartara, 19 herritarrek ortua lantzeko aukera izango dute datozen bost urteetan. Udal ordezkariak jakinarazi dutenez, inork ere ez du izan baratze ludikoen erabilpenik orain arte.

Udal ordezkariak nabarmendu dute ortu ludikoek harrera ona dutela herrian; izan ere, eskainitako lursail guztiak okupatuta daude gaur egun. "Horrek agerian uzten du ekimenak sortzen duen interesa eta harrera bikaina", esan dute. Ortu ludikoen helburua "aisialdirako eta ongizaterako alternatiba" bat eskaintzea dela nabarmendu dute.

"Sinesgaitza da Uriarte eta Maiztegi inputatuta ez egotea"

Eitzagako urteurrena epaitegietako auzibideek zipritzinduta heldu da eta Arantza Baigorri alkate ohiaren inputazioak eragin du oihartzunik handiena. Zaldibarko EH Bilduk ohar bat kaleratu du horren harira, eta "babes osoa" adieraz dio alkate ohiari. Horrez gainera, koalizioak Eusko Jaurlaritzari eta Bizkaiko Foru Aldundiari egotzi die ardura, instituzio horiek biek

zabortegia handitzeko prozesuaren berri bazutela argudiatuta.

Izan ere, Zaldibarko EH Bilduk adierazi duenez, udalerriko plan orokorrak udaleko eta Foru Aldundiko "teknikari guztien onespina" izan zuen; tartean, Imanol Pradales foru diputatuarena (lehendakaria izan baino lehenago, Pradales Bizkaiko Garapen Ekonomikoko

diputatua izan zen 2015etik 2019ra, eta Azpiegitura eta Lurralde Garapenerako foru diputatua 2019tik 2023ra). Era berean, koalizioaren esanetan, Eusko Jaurlaritzak bazekien, 2019an, "zabortegiak zegokion baino eremu handiagoa zuela". Baina "ez zion Zaldibarko Udalarri jakinarazi, eta gertakari hori argitu beharra" dagoela esan dute.

Horrez gainera, EH Bilduk esan du Arantza Baigorri alkate ohiari egotzitako delituak 2015ean Zaldibarko zabortegira egin zuen bisita bat duela oinarri, baina koalizioak gaineratu du Juan Mari Uriartek, 2015etik 2019ra arte Zaldibarko alkateordea izandakoak, "zabortegiaren egoera ezagutzen" zuela. EH Bilduk esan duenez, Uriartek lau bisita egin zituen zabortegira 2019ko abenduan.

**EUSKAL
ESKOLA
PUBLIKOA**

**Kalitatezko
Hezkuntza**

euskadi.eus/hezkuntza

AURREMATRIKULA Otsailaren 2tik 13ra

Txitxiburduntzia egiteko unea

Ohitura zaharrari eutsita, Durangaldeko herritar asko kalera ir-tengo dira asteburuan. Zenbaitek aurretik basora osteratxo egin, eta ondoren txitxiburduntzia edo basokoipetsua egingo dute. Eskualdeko hainbat herritan hitzorduak ipini dituzte. Horiek denak ANBOTOk agenda atalean (19. orria) eta www.anboto.org-en daude ikusgai.



LEHIOR ELORRIAGA

DURANGALDEA ASTEON

'Osasuna eta generoa' berbaldia lurretan

IURRETA 'Osasuna eta generoa. Berdin tratatzen gaitu medikuntzak emakume eta gizonak?' berbaldia egongo da datorren martitzenean, otsailak 10, 18:30ean, Iurretan. Amaia Bacigalupe izango da hizlaria. Iurretako Udalak jakinarazi duenez, aurretik izena eman behar da hitzaldira joateko.



Josefina Goiriena Garamendik 100 urte egin ditu

ZORNOTZA Josefina Goiriena Garamendi zornotzarrak ehun urte egin zituen otsailaren 3an, eta mendeurrena familiakoekin ospatu zuen. Ospakizunean Sonia Cabeza eta Jon Artabe zinegotziak ere egon ziren, eta udalaren izenean urtebetetze oroigarri bat eta lore sorta bat eman zizkieten.



Korrikak egindako lana aitortu dio Errigorari

DURANGO 24. Korrikak Nafarroa hegoaldea euskalduntzeko egindako lana aitortu zion Errigorari, zapatuan, Durangoko Plateruenean. "Errigora eskurik esku, fisikoki eta natural zabaltzen da, Korrikaren lekukoa bezalaxe", adierazi zuen Xabi Gartzia AEKren nazio kontseiluko kideak. "Helduen euskalduntzea dugu erronka eta helburu, eta alor horretan ere bidelagun dugu Errigora", adierazi zuen Ane Elordi Korrika arduradunak.

GUTUNAK

Idatzi zure gutuna eta bidali!

Zure gutuna helarazteko helbidea: Bixente Kapanaga 9 - Iurreta
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO:
• Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

POLITIKAN

JESICA RUIZ
PSE-EE

Aurrekontuak

Aurtengo aurrekontuak otsailean onartzea espero dugu. Aurrekontuak burutu nahi den politikaren isla dira. Ziur gaude alderdi politiko guztiak ados gaudela gure herriarentzat proposatzen diren ekintza gehienetan. Inbertsioei dagokienez, hauek azpimarratu nahiko genituzke:

Adinekoentzako zentro berri baterako proiektua, Saibi kalean kokatuko dena. Proiektu hau parte-hartzailea izatea nahi dugu. Horretarako, adineko pertsonen elkargune berri horren beharrak aztertzen hasiko gara, elkarte eta erabiltzaileei zuzenean entzunda.

San Inazio parkearen estalkia, lau urteren ondoren, errealitate bilakatuko da. Dagoeneko esleitu da eta ekain-uztailerako buruturik egotea espero dugu.

Tabirako multikantxa berri-rako proiektua, lehenbailehen gauzatu ahal izateko.

Gaur egun, lizitazio-prozesuan dagoen Kapitanenaren proiektua. Obrak 2026. urtearen amaieran hasteko aurreikuspena daukagu eta auzoko elkartarekin landutako proiektua da.

Pertsona guztien ongizatea. Aurrekontua handitu egin da arlo sozialean: berdintasun arloan (%6,7), Gizarte ekintzan (%17,70), immigrazioan (%16,18), haur eta gazterian (%5,99), ko-mertzioan (%11,45)

Zergatik ez diogu gehiago erreparatzen batzen gaituenari berreitzen gaituenari baino?

anboto

Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazioa: Itziar Belar Zubizarreta eta Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Goretti Alonso Armendia.
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.



LAGUNTZAILEAK



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜISTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



SUDOKUA











			
			
			
			

MARGOTU

Margotu gurago duzun moduan



PAPIROFLEXIA



MATEMATIKAK

 $= 3$  $= 5$  $= 2$  $= 6$  $+$  $=$  $+$  $=$  $-$  $=$  $-$  $=$ 



Daniel Carreras, ezkerretik hasita hirugarrena.

"Sortze prozesu bakoitzean hustu egiten gara"

DANIEL CARRERAS ANTZEZLEA

ANTZERKIA Xirriquiteula konpainiaren 'Laika' lanak gerra hotzaren garaira darama ikuslea; Durangoko San Agustin kulturgunean taularatuko dute, domekan, 18:00etan

Aritz Maldonado DURANGO

Xirriquiteula antzerki konpainiak *Laika* antzezlari entzutetsua eszenaratuko du Durangoko San Agustin kulturgunean. 2018an estreinatu zutenetik, antzezlariak zazpigarren denboraldia du biran, eta, besteak beste, produkzio honek familientzako ikuslari baten onenaren Max saria eta sortzaile eta zuzendaritzarik onenaren Feten saria irabazi ditu. Lau hamarkadako ibilbidean, konpainiak 25 herrialde baino gehiago bisitatu ditu; *Lai-*

ka lanaren off-eko ahotsa hama-bi hizkuntzataraz itzuli dute; tartean, euskarara. ANBOTOK Daniel Carreras antzezleagaz berba egin du; beragaz batera, Marc Costa, Christian Olivé eta

"LANEN BIZITZA AHALIK ETA GEHIEN LUZATZEA GURA DUT, DENBORAN ETA LEKUAN"

Iolanda Llansó dira protagonistak.

'Laika' 2018an estreinatu zenuten. Urte dezente dira biran jarraitzeko. Gaur egun lau ikuskizun ditugu martxan; hiru aretoetan antzezteko dira, eta laugarrena kaleko antzerkia da. Kalekoak 25 urte ditu, eta aretoetarako batek 22. Beraz, alde batetik, arraroa da *Laika* lanagaz zazpigarren denboraldian egotea, eta bestetik, ez. Konpainian neu arduratzen naiz promozio eta banaketa lanez, eta ikuskizunen bizitza ahalik

eta gehien luzatzea da nire apustua, bai denboran, eta baita leku aldetik ere. Merkatua ez da infinitua, baina handia bai; beraz, ikuskizun batek benetan funtzionatzen badu, ez da zertan urtebetera edo bira amaitu. Bestalde, konpainia modura, sorkuntza fasean asko kostatzen zaigu motorrak martxan ipintzea istorio berriak idazterako orduan. Zorionez, merkatuak ez gaitu baldintzatzen eta ez daukagu beharizanik urte birik behin obra berri bat sortzeko. Astiro lan egiten dugu, baina betiere egonezin artistikoak edo kontatzeko istorio bat edukitzeak mugiarazi gaitu.

Laika obraren sortze prozesua urte bikoa izan zen, adibidez. Hustu egiten gara horrelako prozesu bakoitzean. Horrez gainera, emanaldi asko izaten dugu eta horrek ez du aukera askorik uzten sorkuntzarako. Gurearen moduko konpainia txiki eta independenteetan hori ohikoa da; edo sortzen ari zara edo biran zaude, baina oso gatz da biak bateratzea.

Obra berri bat sortzerakoan, zer lehenesten duzue hasieran, egonezin artistiko hori ala istorioa, zer kontaktu?

Ikuskizun bakoitzak abiatze desberdina du. Lehenengo ideia edo hazi bat dugu, eta hortik aurrera ez dugu metodo zehatzik. *Laika* lanaren kasuan, adibidez, irudi bat izan zen. Laika bera espazioan zela Lurrari zelan begiratzen zion. Irudi hori oso poetikoa iruditu zitzaigun, indartsua. Eta gainerakoa gero dator. Horren atzean gehiegikeria istorio bat dago, manipulazioa, zelan harremantzen garen animaliekin, edota kontu filosofikoagoak. Hori ez dugu mahai baten bueltan erabakitzen; istorioa landu ahala gauzak gehitzen ditugu. *Papirus* lanean, adibidez, ez genuen esan 'goazen gerrari buruz berba egitera'. Ez dugu marko teoriko bat erabiltzen abiapuntu legez. Jolasagaz hasi eta hortik garatzen dugu gainerakoa. Jolasa diot, baina, esan dudan moduan, hustu egiten gaituen prozesua da; ez da ez

erraza, ez atsegina. Erditze moduko bat da, eta ia bizia uzten dugu prozesuan. Egon ez garen lekuak bisitatzen ditugu, eta egin ez ditugunak egin. Adibidez, *Laika* lanak txakurra txotxongiloa izatea eskatzen zigun; ez gara inoiz txotxongilotan aritu, baina konpondu gara eta txotxongilo jaialdietatik ere deitu digute aurkezpenak egiteko, pentsa. Horrek egiten du interresgarri gure lana.

1985ean sortu zenuten konpainia. Hori izan daiteke gako bat gaur egunera arte heltzeko?

Ez dakit zelan eutsi diogun hainbeste urtez. Baneki! Hainbat faktorek eragiten dute. Esango nuke astunak eta tematiak garelako iraun dugula hainbeste urtean. Aurreko batean Timothy Chalamet aktoreari entzun nion esaten berak ez duela ezezko bat jasotzea onartzen. Gaur egun, ikuskizunen munduan ekina izatea ezinbestekoa da, ezezkotz beterik dagoen mundua delako. Guri, adibidez, Bartzelonan beti ezetz esaten digute. Baina horrek ez du esan gura etsi egingo dugunik. Lanean jarraituko dugu, berdin.

Ibilbide osoan zehar familia guztientzako antzerkia egin duzue. Gaur egun, serioago hartzen da antzerki mota hori?

Aita, semea edo iloba naizen aldetik, baietz diotsut. Geroago eta begirada begirunezkoagoa dago umeekiko. Diren modukoak ikusten dira eta programatzaileek ere kontuan hartzen dituzte. Baina asko dago egiteko oraindino. Bigarren mailako antzerkitzat hartzen da, eta ekonomikoki beste modu batera tratatzen gaituzte. Baina gurago dut alde positibotik begiratu. Batzuetan, baina, sentsazioa dut guraso batzuk pasatu egiten direla; ikuskizun batzuetan, dagokien baino adin txikiagokoak ikusten ditut, eta hori ere ez zait egokia iruditzen. Beharbada, haur horientzat gurasoekin etxeko sofan jolasten egotea litzateke egokiagoa, edo naturan egotea. Batzuetan, umeak kulturizatze nahi edo behar bat dago, eta kasu askotan ez da egokiena umeentzat. Hala ere, aurrerapausoak ematen gabiltzala esango nuke, egiteko asko dagoen arren oraindino. Gu askotan joaten gara Frantziara, eta aldea handia dela konturatu gara. Danimarkara ere joaten gara, eta han ere beste begirada bat dutela igarri dugu, helduagoa, errespetuzkoagoa.

"LAIKAREN IRUDIA, ESPAZIOTIK LURRERA BEGIRA, OSO IRUDI INDARTSUA IRUDITU ZITZAIGUN"

Aiten doluaz Berrizen, 'Aitatxo' antzezlanean

ANTZERKIA Berrizko Kultur Etxeak Mallabian bizi den Anakotz Lasartek idatzitako 'Aitatxo' obra hartuko du zapatuan, otsailak 7, 19:00etan; Unax Uralde eta Alex Tello dira antzezlaneko protagonistak, eta Telmo Iruretak egin ditu zuzendari lanak

A. M. BERRIZ

Zapatuan, hilak 7, 'Aitatxo' antzezlanaren taularatuko dute Berrizko Kultur Etxean. Benetako gertaeretan oinarritutako lana da; hain zuzen ere, Mallabian bizi den Anakotz Lasarte berriztarrak eta bere senideek bizitakoa. Lasartek seme biren heriotza bizi behar izan du, eta horri buruz berba egiteko hainbat ekimen ipini du martxan. *Aitatxo* dokumentala estreinatu zuen iaz, eta gertaera euren oinarritzen den izen bereko antzezlanaren dago orain aretoetan. Atzezlanak aita baten ikuspuntutik seme-alabaren bat galtzearen dolua erakusten du; aitaren (Alex Tello) eta semearen (Unax Uralde) arteko elkarrizketen bitartez, doluari, maitasunari eta aurrera egiteko indarrari buruzko istorioa eraikiko dute. Lanak aitaren esperientziak nabarmentzen ditu, batez ere. "Berandu egin nuen dolua eta horrek ondorioak utzi zizkidan; ez nituen nire mina eta sufri-



Unax Uralde eta Alex Tello.

mendua behar zenean azaleratu. Neurri handi batean, gizarteak bultzatu ninduen horretara", azaldu du Lasartek.

Berrizkoaren aurretik, Ermuko Antzokian ere taularatu zuten antzezlanaren, eta martxoan Her-

naniko Biteri kultur etxean eszenaratuko dute. Lasarteren berbetan, Eñaut Aiartzaguena marrazkilaria laguntzagaz liburua kaleratzeko asmoa du, oraindino datarik jakinarazi ez badute ere.



Erakusketa otsailaren 27ra arte dago ikusgai.

Gazako injustiziak salatzen dituen erakusketa Zornotzan

ESKULTURAK Euskahaldunak Eskultoreen Elkarteak 'Gazako garrasia' izeneko erakusketa antolatu du

A. M. ZORNOTZA

Palestinako herriak elkartasun keinu ugari jaso du azken urteetan. Han bizi duten egoeragaz sentsibilizaturiko hainbat artistak sorturiko piezekin, Euskahaldunak Eskultoreen elkarteak erakusketa antolatu du. 'Gazako garrasia' izena ipini diote erakusketari, eta artearen bitartez kontzientzia piztu gura du. "Bertan parte hartzen dugun artistok adierazi gura dugu Gazan bizi den egoera ezin dela normalizatu", azaldu dute elkartearen kideek. Besteak beste, Bilbon bizi den Rouhaifa Kassem artista errefu-

xiatu gazatarraren lanak daude erakusketan. "Palestinako herriak jasaten duen injustizia salatu eta ikusgarri egin gura dugu, eta Gazako biztanleen ahotsa zabaltzea dugu helburu nagusi", gaineratu dute.

Erakusketa otsailaren 27ra arte egongo da, Zelaieta Zentroko erakusketa gelan, eta sarrera doakoa izango da. "Bisitariak Gazako errealitateaz gogoeta egiteko aukera izango dute, bai ikuspegi artistikotik, eta baita giza eskubideen ikuspegitik ere", nabarmendu dute elkartearen kideek.



GAIBREAN

AINHOA OLASO SOPELANA BEHARGINA

Asteartea zen

Elegantzia handiarekin igo zen eszenatokira. Beluse gorria eta segurtasuna zeramatzen soinean. Mikrofonora hurbildu zen emanaldiari sarrera emanez: *there's a great atmosphere for a Saturday*. Inork ez zuen ordura arte altuan esan baina ezkutatuta bezala geunden, pozarren. Bezperak espero zuenetik urrun, biharrarekin gordeketetan antzoki txiki hartako ilunpetan. *Giro bikaina dago larunbata izateko*. Publikoan geundenok barre egin genuen. Asteartea zen.

Astelehenetik gentozen eta hurrengo egunean ere goiz esnatu beharra geneukan. Baina momentu horretan, beste zer baitetan pentsatzeko premisa ederra zabaldu genuen gure artean. Amets ederrak baititugu, lo gutxi egin arren.

Enplegurik gabeko bizitzak imajinatzen hasi ginen orduan. Nola ez gara ba lehenago konturatu? Munduaren iheskortasunaren kontra, gutizia txikiak xuxurlatu genizkion belarrira elkarri:

**"ETA DANTZAN JARRAITU
GENUEN GEHIEGIZKO
ESZITAZIOAREKIN
URTU AURRETIK"**

Lan egitea eta alperkerian egotea ez dira antonimoak izango! Eta lan ordaindurik egiten ez duenak baliozko ezer egiten ez duenaren ideia ezabatuko dugu. Uuuuh, bai ze ona, eta eta plazeraren aldeko erabakiak hartzea izango da gure ofizio nagusia. Hori hori, baina jarduera pilaketarik ez, mantsotasunak gobernatuko du! Erabat, poliki-poliki ibiliko gara, lasaitasunik gabe ez dagelako entzuteko dohairik eta elkar entzuteko dohairik gabe, ez dugulako mundu honetan bizi nahi! Eta asperduraren aldeko aldarria berreskuratuko dugu gure pankartetan, ezin bagara aspertu, hau ez da gure iraultza! Hori da eta ibiltzearekin aspertuta, dantza egingo dugu, dantza, errendimendu-printzipioetatik ihes egiten duen luxua baita. Beraz, pertsona errespetagarri bezala, gure bizitzak bizirauteko borrokatik harago antolatuko ditugu. Arren, asteartea izan arren!

Eta dantzan jarraitu genuen, gehiegizko eszitazioarekin urtu aurretik.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTEN EGUERDIA BAINO LEHENA-
GO. Tel.: 946 232 523 / agenda@anboto.org

BARIKUA 6

ABADIÑO Aurkezpena
Abadiñoako Inauteriak: Anbotoko
Damie eta Kokomarro.
Txanporta kultur etxean, 17:30ean.

DURANGALDEA Deialdia
Rio de Oro GKEk deituta, janari eta
oinarriko produktuen bilketa,
Tindufeko errefuxiatu kanpamentuetan
bizi diren sahararrei bidaltzeko.
Eskualdean, otsailaren 13ra arte.

MAÑARIA Deialdia
Andramari dantza taldean dantzan
egin dutenak deitu dituzte,
taldearen 40. urteurrena ospatzeko.
Udaletxeko aretoan, 18:30ean.

ZORNOTZA Erakusketa
'Gazako garrasia', 40 eskultura
batzen dituen erakusketa
(Eskuhaldunak Eskultoreen Elkarteak).
*Otsailaren 28ra arte, Zelaia eta
zentroan.*

ZAPATUA 7

ABADIÑO Lehiaketa
XXXVI. Burduntziko Bildots Txapelketa.
Bazkaria, 14:00etan, probalekuan.
Probalekuaren alboan, 09:00etan.

BERRIZ Antzerkia
'Aitaxo' (Anakotz Lasarte).
Kultur Etxean, 19:00etan.

DURANGO Tailerra
Surrandien maskara tailerra.
Kriskitinen lokalean (17:00-19:00).

IURRETA Bizikleta irteera
Muniategira irteera. Iurreta
Txirrindulari Elkarteak.
Iurretan, 09:30ean.

IURRETA Kontzertua
Gar.
Abadetxean, 19:00etan.

MALLABIA Txixiburduntzia
Txixiburduntzia. Umeentzako edaria
eta sua udalak ipiniko ditu.
Parkean, 19:00etan.

MALLABIA Santa Ageda
Santa Ageda koplak abestera
irteera, Mendibil Abesbatzak

antolatuta. Berano Txiki, Berano,
Arandoño eta Goita auzoetan.
Mallabian, 10:00etan.

MAÑARIA Santa Ageda
Santa Ageda koplak abestera irteera.
Plazan, 08:30ean.

ZORNOTZA Ipuin kontaketa
Ipuin kontaketa musikatua. Santiago
Onaindia bekari lotutako 'Lourdes
Iriondo, bide-urratzaile' jardunaldiak.
Udal liburutegian, 12:00etan.

DOMEKA 8

ABADIÑO
Tokiko ekoizle eta artisauen azoka,
Samba Badago taldeak girotuta.
Txanporta plazan (10:30-14:00).

ABADIÑO Txixiburduntzia
Txixiburduntzi Jaia antolatu dute.
Makila norberak eraman behar du.
(Txartelak: Lagun Tokin, Larranon
eta Jubilatuen tabernan).
Amnistia plazan, 12:30ean.

ATXONDO Txixiburduntzia
Txixiburduntzia Topen, 13:00etan
(Sua eta ogia guraso elkartearen
esku). Oinez joango dira.
Plazan, 10:30ean (euriagaz frontoian).

DURANGO Antzerkia
'Laika' (Xirriquiteula Teatro).
San Agustin kulturgunean, 18:00etan.

DURANGO Txixiburduntzia
Herria auzo elkarteak
txixiburduntzia antolatu du.
Baturiko dirua Geu Be elkarteari
emango diote.
Herria taberna aurrean, 18:00etan

DURANGO Txixiburduntzia
Mendi buelta, 09:00etan.
Txixiburduntzia, 12:00etan.
Tabirako Jai Batzordeak antolatuta.
Tabira auzoan.

GARAI Txixiburduntzia
Mendi buelta, 10:30ean. Ondoren,
txixiburduntzia. (Sua, ogia eta
makilak antolakuntzak ipiniko ditu).
Plazan, 12:30ean.

IURRETA Bizikleta irteera
Otxandiora irteera. Txirrindulari Elkarteak.
Iurretan, 09:30ean.



LA LIQUIDA

IURRETA Antzerkia
Ellas de oro antzezlanaren garai bateko emakume aske eta jantziei egindako
begirada dibertigarri, hunkigarri eta bitxia da. David Garcia-Intriagok sortu
eta zuzendu du La Liquida konpainiak aurkeztutako obra.
Otsailak 6, barikuan, Ibarretxe kultur etxean, 19:00etan.

IURRETA Txixiburduntzia
Txixiburduntzia. Sua eta makilak
Jai Batzordeak ipiniko ditu.
Plazan, 12:30ean.

IZURTZA Txixiburduntzia
Txixiburduntzia.
Plazan, eguerdian.

OTXANDIO Txixiburduntzia
Arkotxe elkarteraino ibilaldia antolatu
dute, bertan txixiburduntzia egiteko.
(Guraso Elkarteak, Mirugain mendi
taldeak eta Arkotxek antolatuta).
Plazan, 11:00etan.

OTXANDIO Bakarrizketa
Txarly eta Alfonso umoristak.
Pasealeku elkarteak, 19:00etan.

ZALDIBAR Txixiburduntzia
Zaldua mendi taldeak Arietzura
irteera antolatu du. Gero,
txixiburduntzia egingo dute Goierrin.
Antolatzailek jan-edana ipiniko dute.
Plazan, 10:00etan.

ZORNOTZA Basokoipetsu
Basokoipetsu eguna ospatzeko
ibilaldia San Bartolomera. Sua eta
sagardoa, antolatzaileen esku (Andra
Mari ikastola eta guraso elkarteak).
Kalbario plazan, 10:00etan.

MARTITZENA 10

IURRETA Berbaldia
'Osasuna eta generoa. Berdin tratatzen
ditu medikuntzak emakumeak eta
gizonak?' (Hizlaria: Amaia Bacigalupe,
Osasun Publikoan doktorea eta EHUKO

Gizarte eta Komunikazioa Zientzien
Fakultateko Soziologia eta Gizarte
Languntza Saileko irakaslea).
Bibliotekan, 18:30ean.

ZORNOTZA Berbaldia
'Lourdes Iriondo, bide-urratzaile'
(Hizlaria: Alex Gurrutxaga). Santiago
Onaindia bekari loturiko 'Lourdes
Iriondo, bide-urratzaile' jardunaldiak.
Zelaia eta auditoriumean, 19:00etan.

EGUAZTENA 11

ABADIÑO Berbaldia
'Esnatu ala hil. Euskararen oraina eta
geroa, diagnostiko baten argitan',
berbaldia eta liburu aurkezpena.
(Hizlaria: Garikoitz Goikoetxea).
Txanporta kultur etxean, 18:30ean.

ZORNOTZA Dokumentala
'Lourdes Iriondo, ez gara alferrik
pasako', Santiago Onaindia bekari
loturiko 'Lourdes Iriondo, bide-
urratzaile' jardunaldiak.
Zelaia eta Auditoriumean, 19:00etan.

EGUENA 12

MALLABIA Eguen Zuri
Eguen Zuri koplak.
Mallabian, 12:00etan.

BARIKUA 13

DURANGO Bakarrizketa
Victor Amilibia umorista.
Otamotzen auzogunean, 19:00etan.

ZINEMA

BERRIZ

KULTUR ETXEAN

Turno de guardia
Zapatua 8: 19:00.

DURANGO

ZUGAZA ZINEMA

Tres adioses

Barikua 6: 18:00, 20:30.
Zapatua 7: 19:15, 21:30.
Domeka 8: 19:30.
Astelehena 9: 17:45, 20:15.
Martitzena 10: 17:45, 20:15.

La fier

Barikua 6: 18:00, 20:30.
Zapatua 7: 16:45, 19:15, 21:30.
Domeka 8: 17:00, 19:30.
Astelehena 9: 17:45, 20:15.
Martitzena 10: 17:45, 20:15.
Eguaztena 11: 19:00.

Primate

Barikua 6: 18:00, 20:30.
Zapatua 7: 16:45, 19:15, 21:30.
Domeka 8: 17:00, 19:30.
Astelehena 9: 18:00, 20:15.
Martitzena 10: 18:00, 20:15.
Eguaztena 11: 19:00.

Zootropolis 2

Zapatua 7: 16:45.
Domeka 8: 17:00.

**Jonas Kaufmann. The sound of
movies**
Eguaztena 11: 19:00.

ELORRIO

ARRIOLA ANTZOKIA

La misteriosa mirada del flamenco

Zapatua 7: 20:00.
Domeka 8: 20:00.
Astelehena 9: 20:00.

Tigre galdia

Domeka 8: 17:00.

ZORNOTZA

ZORNOTZA ARETOA

Marty Supreme

Barikua 6: 20:00.
Zapatua 7: 20:00.
Domeka 8: 20:00.
Astelehena 9: 20:15.

Oilaskoerbi eta marmotaren sekretua

Zapatua 7: 17:00.
Domeka 8: 17:00.

Una bonita mañana (J.B.G.A.)
Martitzena 10: 19:00.

ELORRIO Antzerkia
'Nor naizen baneki' (Artedrama&Axut!).
Arriola antzokian, 20:00etan.

MALLABIA Txapelketa
Herriko Petanka Txapelketa.
Frontoian, 18:30ean.

ZORNOTZA Ikuskizuna
'Zerua lapurtu dute' (Porrotx,
Marimotots, Pupu eta Lore).
*Zornotza Aretoan, 17:15ean eta
19:15ean.*



Aritz Zalbidegoitia eta Xabi Arizmendiarieta Cafe Dromedario-Flotameteko eta Durangaldeko Bizikleta Eskolako elastikoekin.

"Kirolean datuak interesgarriak dira, baina batzuetan krudelak ere bai"

XABI ARIZMENDIARRIETA ETA ARITZ ZALBIDEGOITIA PRESTATZAILEAK

Urte batzuetatik hona, asko erreparatzen zaie datuei, baina Cafe Dromedario-Flotamet taldeko prestatzaileek pertsonak eta balioak ipintzen dituzte erdigunean

Joseba Derteano DURANGO

Ataritik barbaroa entzuten da Duranguesa txirrindulari elkarteko egoitza barruan. Xabi Arizmendiarieta Fernandez (Elorrio, 1993) eta Aritz Zalbidegoitia Agirrebeitia (Durango, 2002) norbaiten oxigeno kontsumoaren maximoari buruz eztabaidan dabilta arrabola bat tokiz aldatzen duten bitartean. Kadete eta gazte mailetako Dromedario-Flotamet taldeko entrenatzaile eta prestatzaileak dira biak. Prestaketan

azken urteetan izan den garapenari buruz berba egin dugu eurekin.

Asko aldatzen da prestaketa kadeteetatik junior mailara?

Xabi Arizmendiarieta: Kadeteetan entrenamenduak bateratuak dira. Zergaitik? Ba, taldean irteteari eta hartu-emanak sendotzeari garrantzi handia ematen diegulako. Gero, juniorretan, apur bat gehiago indibidualizatzeko joera egoten da.

Aritz Zalbidegoitia: Izan ere, kadeteetako lasterketarik luze-

na 69 kilometrokoa da, Eibarkoa, eta juniorretakoa 140 km ingurukoa. Orduan, prestaketa aldetik, kadeteak 8 bat orduan entrenatzen dira astero, eta juniorrak halako bi edo gehiago. Alde handia dago.

"HEMEN IKASITAKOA BIZITZAN BALIAGARRI ZAIELA SENTITZEAK BIZIPOZA EMATEN DIGU"

Gazteekin lan egiten duzuenean non ipintzen duzue arretarik handiena, epe laburreko errendimenduan ala epe luzerako garapenean?

X.A.: Inportanteena garapena eta formakuntza dira. Gozatzuz ikastea eta balioak transmititzea, eta horrek bizitzarako ekarriko dizkien onurak. Errendimendua ondoren dator eta ez da garrantzitsua, kadeteetan ez behintzat. Juniorretan beharbada apur bat gehiago fokalizatu daiteke txirrindulari bakoitzaren errendimenduan, beti ere helburu nagusiari eutsiz: bizikleta gainean gozatzea.

A.Z.: Ziklista batek irabaztea izan dezake buruan juniorretan, eta Euskadiko selekzioagaz joatea du helburu. Beste batek, oster, lagun giroan ondo pasatzea eta lasterketa amaitzea izan dezake helburu nagusi. Orduan, fokalizazioa desberdina da. Orduan ikusi behar duzu bakoitzak zer eskatzen duen eta zer emateko gai den. Errealistak izan behar dugu.

Prestakuntza geroago eta pertsonalizatuagoa da. Jasotzen diren datuek zer pisu daukate?

X.A.: Test desberdinak egiten dira, laktato testak esaterako. Test horrek esfortzuan zehar odolean pilatzen den azido laktikoaren maila neurtzen du. Datu horiei eskerrak, txirrindulariaren erresistentzia eta entrenamendu intentsitate egoiak zehaztu daitezke.

A.Z.: Gure sasoian, potentziometroa zuena arraroa zen. Bost urtetik hona oso modan ipini da. Gazte askok dute eta bere erabilera orokortu egin da. Orain potentziometroa ez izatea da arraroa.

X.A.: Datuak interesgarriak dira, baina batzuetan baita hotsak eta krudelak ere. 18 urteko neska edo mutil bat beharrezko datuetatik urrun badago eta emaitza onak lortzea gatz izango duela badakigu, egoera kudeatu beharra dago. Eta kontrakoa ere gertatzen da. Datuek ez dute ziurtatzen profesionaletarako saltoa ematea, landu eta hobetu beharreko ezaugarri gehiago ere badagoelako: bizikleta gainea abilezia, pelotoian ibiltzeko gaitasuna... Geroago eta gehiagotan ikusten diren gabeziak dira, eta alor horiek ere landu behar dira. Kontua ez da bakarrik entrenatzea eta pedalei eragitea. Berna indartsuak izatea ez da nahikoa.

Hasieratik ahalegintzen gara gaitasun horiek lantzen.

Neguan ziklo-krosa eta pista nagusitzen dira. Zelan doa denboraldia modalitate bi horietan?

A.Z.: Oso ondo. Telmo Hernandezek, Aitorren semeak, kadete mailako Euskadiko txapelketa irabazi du ziklo-krosean. Eta Axular Aldazabal eta Xuba Gorroño pistako Bizkaiko txapeldun izan dira junior eta kadete mailan, hurrenez hurren.

X.A.: Kadete mailakoei beti gomendatzen diet neguan pistan entrenatzea, errepideko denboraldiari begira. Belodromoan 15-20 gazte elkartuta pelotoi bat egiten duzu, azken batean. Pelotoian joateko simulazioak egin daitezke, gaitasun hori hobetzeko.

Prestatzaile lanean zerk ematen dizue satisfaziorik handiena?

X.A.: Pozik dabiltzala ikustea eta txirrindularitza uzten dutenean hemen ikasitakoa bizitzan baliagarria izango zaiela sentitzea. Horrek bizipoza ematen dit.

A.Z.: Badago txirrindulari bat belauneko lesio bategaitik entrenamenduetan 10 kilometro egiteko kapaz ez zena. Handik lau hilabetera, gure aholkuekin eta gure laguntzagaz, dortsala ipini du berriro. Eta horregaz harro gaude.

Azken urteetan ikusten da txirrindulariak geroago eta gazteago helitzen direla profesionaletara. Formakuntza prozesua azkartzen dabil?

X.A.: Remco Evenepoel efektua deitzen diogu. Juniorretatik profesionaletara igo zen, 2019an. Orduan, juniorrek pentsatzen dute: "Ni ere igo naiteke". Prozesua bizkortzen hasi zen: lehen afizionatuetan entrenatzen zena junior kategorian entrenatzen da orain, eta juniorretan entrenatzen zena kadeteetan. Baina argi izan behar da formakuntza prozesu bat dela. Orain gazteek ez dute juniorretatik 23 urtez azpiko mailara igo gura, zuzenean profesionaletara baino.

A.Z.: Denak ez dira Remco edo Ayuso. Bakoitzak prozesu bat dauka. Mikel Landa eta Pello Bilbao, adibidez, ez ziren onenak euren gaztaroan, baina urteak joan ahala gora egin dute. Ziklista guztiek ez dituzte denbora berdinak, hori ulertu behar da. Zorionez, gurek Eiser-Hirumet 23 urtez azpiko taldea dute, trantsizioa modu harmonikoagoan egiteko.



Bizkaiko Birako etapan bisitatuko duten inguruetariko bat, Karrantzan. ALPINO

Bizkaiko Biraren hurrengo etapa otsailaren 15ean

MENDIA Lanestosatik Burgosko Hornes herrixkarainoko bidea egingo dute, 25 kilometro dituen etapa berrian

J.D. DURANGO

Alpino Tabira mendi klubak zenbait irteera antolatu du otsailarako. Irteera bat 2024an hasitako Bizkaiko Birari dagokio. Ekimeneko hurrengo etapa otsailaren 15ean izango da. Iaz Lanestosara heldu ziren eta aurten handik abiatuko dira, Burgosko Hornes herrixkara heldu arte. Izen ematea otsailaren 5ean zabalduko dute, klubaren ohiko ordutegian.

Otsailaren 21erako sagardotegirako irteera antolatu dute. Aurten Gipuzkoara joango dira. Elgoibar eta Azpeitia arteko

GR 285 ibilbideari jarraituta, Izarraitz mendilerroa eta bere gailurrak bisitatuko dituzte. Izen ematea otsailaren 10ean hasiko da.

Aurretik, otsailaren 8an, Txitxiburduntzi Eguna ospatuko dute Momoitioko San Juan inguruko parajeetan.

Hilea elurretan agurtuko dute, otsailaren 27tik martxoaren 1era Baqueira Bereten egingo duten asteburu-pasagaz. Bertan, eskiari loturiko zenbait kirolegaz gozatzeko aukera izango dute. Izen ematea otsailaren 19an hasiko da.

Asto Trailerako izen ematea astelehenean hasiko da

MENDI LASTERKETA

Hiru ibilbide daude aukeran: lasterketa luzea, laburra eta mendi martxa

J.D. GARAI

Garaiko Asto Trail mendi lasterketarako izen ematea astelehenean hasiko da, otsailaren 9an, eta kronoak.com atarian atarian egin daiteke. Uztaillaren 15era arte egongo da zabalik, baina kamiseta lortzeko uztaillaren 9a baino lehenago eman behar da izena, antolatzaileek zehaztu dutenez. Uztaillaren 18an hiru ibilbide egongo dira aukeran: mendi martxa (16 km), lasterketa laburra (martxaren ibilbide bera) eta lasterketa luzea (26 km). Lasterketak Durangaldeko Koparako puntuagarriak izango dira.

Duatloirako izen ematea

Otsailaren 28an Garain izango den duatloirako izen ematea ere martxan da. Antolatzaileek gogoratu dute ez dela federatuentzat bakarrik; federatuta ez daudenentzat ere zabalik dagoen proba da.



Tabirako Baqueko talde bat besoko berdeagaz. TABIRAKO

Tabirakok minbiziaren aurkako egunagaz bat egin du

SASKIBALOIA Joan zen asteburuko partiduetan jokalariek besoko berdeak ipini zituzten, elkertasuna adierazteko

J.D. DURANGO

Aste honetako eguaztena Minbiziaren Aurkako Nazioarteko Eguna izan da. Horren harira, Bizkaiko Minbiziaren Aurkako Elkarteak 'Batzen gaituen ikurra' izeneko sentsibilizazio kanpaina abiatu du. Tabirako Saskibaloia Taldeak bat egin du kanpainagaz, eta joan zen asteburuan jokaturako partidua guztietan jokalariek besoko berdea eraman zuten. Beste horrenbeste egingo dute asteburu honetako partiduetan ere. Horrez gainera, elkartearen Durangoko boluntarioek eskumuturrekoak banatu zituzten asteburuan, eta

ekimenaren berri eman zuten, herritarren parte hartzea eta sentsibilizazioa bultzatzeko.

Talde nagusien garaipenak

Tabirako Baqueko talde nagusi biek irabazi egin dute asteburuan. Gizonek Atletico San Sebastian azken sailkatua menderatu zuten etxean: 79-52. Aipatzekoa da hirukoetan erakutsi zuten zehaztasuna (%43). Emakumeek gehiago sufritu zuten etxetik kanpora Zarautz menderatzeko: 59-62. Taldeko saskiratzaile nagusia Elene Sarasua izan zen, 18 puntugaz.



JOKALDIA

MIKEL CANIBE ANSORENA LARRASOLOETA XAKE TALDEA

Bost talde ligak jokatzen

Bizkaiko klubak liga hasi da eta Larrasoloeta Klubak ilusioz ekingo dio denboraldiari, aurten bost talde baititu liga jokatzen. Azken hogeitaz klubean izan den talde kopururik handiena da.

Lehiaketa hainbat mailatan antolatuta dago: Preferente, Lehen Maila, Bigarren Maila eta Hirugarren Maila, taldeen mailaren arabera antolatuak. Larrasoloetak talde bat dauka Preferente mailan, Euskal Ligara igotzea helburu duena. Bigarren Mailan beste talde bat dago, Lehen Mailara igo nahi duena. Horrez gain, beste hiru taldek Hirugarren Mailan parte hartzen dute; bertan, hasiberriak eta beterranoak nahastu dira, gazte zein nagusi. Lau jardunaldi jokatu ondoren, Larrasoloeta A hirugarren postuan dago Preferente Ligan, 8,5 punturekin. Getxo A eta Santurtzi B dira sailkapeneko liderrak, bakoitza 10,5 punturekin. Bestalde, Larrasoloeta B bosgarren doa Bigarren Mailan, 9 punturekin, lehen sailkatuarengandik —Getxo B— 2,5 puntura.

Liga bederatzi larunbatetan jokatzen da, urtariletik martxora bitartean. Jardunaldi bakoitzean, lau jokalariko taldeak arituko dira elkarren aurka. Puntuazio-sistema erraza da: garaipen bakoitzak puntu 1 ematen dio taldeari, berdinketak 0,5 puntu, eta porrotak ez du punturik ematen. Partidak xake formatu klasikoan jokatzen dira, jokalaria bakoitzeko 90 minutuko denbora-rekin.


Sistema horri esker, norgehiagoka bakoitzean gehien 4 puntu egongo dira jokoan, eta horrek partida bakoitza

"LARRASOLOETA KLUBETIK GONBIDATU NAHI ZAITUZTEGU GURE PARTIDETARA ETA GURE JOKALARIAK ANIMATZERA"

erabakigarria bihurtzen du jardunaldiaren azken emaitzarako zein sailkapen orokorrerako.

Larrasoloeta Klubetik pertsonalki gonbidatu nahi zaituztegu gure partidetara etortzera, giroa bizitzera eta gure jokalariek animatzera. Xakea interesatzen bazaizu, otsailaren 7an eta 21ean, baita martxoaren 7an ere, etxean jokaturako ditugun jardunaldietako edozeinertara etor zaitezke ikusle gisa. Partidak 16:00etan hasiko dira eta Landako kiroldegien sotoan izango dira. Halaber, bazkide egiteko eta datorren denboraldian jokatzeako moduari buruzko informazioa jaso dezakezu. Afiliatzeko, nahikoa da partida-egunetan kiroldegira joatea edo gure helbide elektronikora idaztea: ajedrez.durango@gmail.com.

Xakearekiko jakin-mina baduzu edo klubeko kide izan nahi baduzu, orain une ezin hobea da familia handi honetan sartzeko. Besoak zabalik itxarongo zaituztegu Larrasoloeta Klubean!



GUARDIAKO BOTIKAK	
OTSAILAK 6, BARIKUA	
09:00-09:00	
De Diego, Inbaurrondo 22. - Durango	
Gutierrez, Txiki Otaegi 3 - Zornotza	
OTSAILAK 7, ZAPATUA	
09:00-09:00	
Sagastizabal, Askatasun etorb. 19 - Durango	
Ruiz, El Alto-Bide Zahar 14 - Zornotza	
OTSAILAK 8, DOMEKA	
09:00-09:00	
Navarro, Artekalea 6 - Durango	
Ruiz, El Alto-Bide Zahar 14 - Zornotza	
OTSAILAK 9, ASTELEHENA	
09:00-09:00	
Balenciaga, Ezkurdi plaza 8 - Durango	
Ruiz, El Alto-Bide Zahar 14 - Zornotza	
OTSAILAK 10, MARTITZENA	
09:00-09:00	
Gaztelumendi, J.A. Abasolo 2 - Durango	
Ruiz, El Alto-Bide Zahar 14 - Zornotza	
OTSAILAK 11, EGUAZTENA	
09:00-09:00	
Irigoien, Bixente Kapanaga 3 - Iurreta	
Ruiz, El Alto-Bide Zahar 14 - Zornotza	
OTSAILAK 12, EGUENA	
09:00-09:00	
Sarria, Sasikoa 17 - Durango	
Ruiz, El Alto-Bide Zahar 14 - Zornotza	

24 orduz zabalik dauden farmaziak dauden zerrendan.
22:00 arte zabalik daudenak ere ikusteko: www.anboto.org/botikak

ZORION AGURRAK



June
Otsailaren 1ean, 10 urte. Otsailaren 1ean Junek 10 urte egin zituen. Zorionak eta patxo haundi bat familiako guztion partez! Prestatu merixenda gozoa.



Oinatz
Zorionak, **Oinatz!** Otsailaren 2an 14 urte egin dozuz. Zure familiaren partetik esan nahi dautsugu segitzeko hain futbolari trebea izaten. Mosu potolo bat.



GOZATU GOZOTEGIA
Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
661 40 14 00
Gozatu Gozotegia
[gozatugozotegia](#)

Hamabostean behin, jasotako zorion-agurren artean **GOZATU gozotegiko tarta bat zotz egingo dugu**. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion-agurrarekin batera.

Zoriondu itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu:

Internet
Anboto.org-en erabiltzailea sortu eta Anboto.org/zorionagurrak helbidean sartu zorion agurra.
Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta barikuan Anboto paperean.

Posta elektronikoa
Mezua bidali agenda@anboto.org helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urteguna eta gura duzun testua.

Ordezkaritza
Etorri zaitetz Anbotoren ordezkari zara edo deitu 946 232 523 telefonora.



Oihan
Urtarrilaren 28an, 8 urte. Zorionak, **Oihan!** Urtarrilaren 28an 8 urte egin dituzulako. Musu handi bat etxekoan partez.



Elene
Urtarrilaren 24an, 12 urte. Zorionak, printzesa! Urtarrilaren 24an 12 urte egin dozuz. Espero dogu oso ondo pasatu izana. Mosu potolo bat zure familia guztiaren partetik.



Kattalin
Abadiñoko sorgintxo politenak hamaika urte eitten dauz. Zorionak eta musu asko etxekoan partez, bereziki asko maitte zaituen Aratzen eta Malenen partez.



Vanesa Galvan
Maitasunez eta zoriontasunez betetako urtea opa dizugu. Zorionak, **Vanesa Galvan**.

PABILIOIA SALGAI
Iurretan, Mercadona ondoan

1.190m²

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK
Tel.: 94.681.66.73
Mug.: 649 40 26 23
zarateylexpe.com



anboto

INAUTERIE TAKO

ARGAZKI LEHIAKETA

SARIA
EUSKAL
PRODUKTUEKIN
OSATUTAKO
OTZARA BAT

BIDALI ZURE
ARGAZKIA
688 635 041
ZENBAKIRA
EDO WEBGUNERA

Argazkiak bidaltzeko
azken eguna
OTSAILAK 19





LAU-HORTZA

MARKEL
SANCHEZ ZELAIA

Toponomiaren alde

Izena duena bada. Edo hori esaten da, behintzat. Izendatzeko hutsak ematen diola izatea zerbaiti, bestela nekez existituko litzatekeela. Baina, kontrara, izena duen gauza asko ez da. Toponimia da horren erakusle, eta leku guztietan lez, Durangon badaude adibideak: Ezkurdin ez dago haritzik, Goienkalea ez da gorengo kalea, Pinondoko arbola nagusia Ginkgo biloba da, Landakon ez da landarik ikusten, Kalebarriak urte mordoa ditu, udaberrian ez dago otalorerik Otamotzenan, Sasiakoan inori ez zaizkio prakak urratzen, Mataderoan ez da txahalik hiltzen, Kurutziagan gurutzerik ez dago eta Arripausetan erreka beste modu batera pasatu behar da.

Baina kontuz, toponimiak ez du gezurrik esaten: ez diren lekuak esaten ditu.

Horregatik, toponimia herri gogoa ere bada. Avenida del Generalísimo zena Askatasun etorbide izendatu zuten duela hamarkada batzuk, eta badira hilabete batzuk Independentzia plaza daukagula San Fauston.

Toponimia zerbait bada fikzioa da, fikzioa bere zentzu performatiboenean, erakusten digulako esaten dugun hori posible dela hemen eta orain, bizi gaitzkeela ezleku horietan, Anboto mendi bat baino gehiago izan daitekeela, adibidez. Historia izan daitekeela orain, gure gogoa gogo hutsa baino gehiago. Ez den herri bat badela hemen.

AKUILUA

"Sasoi hartan ez zegoen ezer gazteentzat, eta mendian ondo pasatzen genuen"

AINHOA BRABO ETA IBAN URIBETXEBARRIA ZALDAI MENDI TALDEA

Mendi talde iurretarraren sortzaileei orogarri bana eman zieten joan zen domekan egindako omenaldian. 25 urteko ibilbidea ospatu gura izan dute horrela

Aitziber Basauri IURRETA

Ezagunak dira Zaldaik Iurretan antolatzen dituen Mendi Martxa eta baita Mendi Erronka ere. Mende laurdeneko bidea eginda, gaur egun taldearen gidaritzan dabilzanek sortzaileak omendu dituzte. Modu boluntarioan ekimena martxan ipini zuten ki-deetariko bi dira Ainhoa Brabo Ibarra (Iurreta, 1975) eta Iban Uribe txebarría Legorburu (Durango, 1980).

Ainhoa, zelan gogoratzen duzue Zaldairen hasiera?

Ainhoa Brabo: Elkartzeko leku bat gura genuen gazte kuadrilla bat ginen. Abadetxera sartu ginen eta rokodromo txiki bat sortu genuen bertan, materiala gordezkeko. Hor sortu zen dena. Mendira joateko joera genuen eta irteerak antolatzen hasi ginen. Oso garai polita izan zen. Kuadrillakoak elkartzen ginen mendira irteerak egiteko edo beste-lako ekitaldiak prestatzeko.

Orain dela 25 urte, zeintzuk irteera antolatzen zenituzten?

A.B.: Mendira, eskalatzerara, piraguan ibiltzerara, eskiatzerara... Gazteentzat ez zegoen ezer eta mendian ondo pasatzen genuen.



Ainhoa Brabo eta Iban Uribe txebarría.

Nondik dator Zaldaiz izena?

A.B.: Lagun kuadrilla hartako asko Zaldaiz errekarara joaten ginen askotan, umeago ginenean. Gure umezaroan elkartzeko leku

bat zen. Bada, denon artean adostuta mendi taldeari izen hori ipini genion.

2007an Abadetxera erre egin zen eta eten bat geratu zen.

A.B.: Bai. Gure ametsak han geratu ziren neurri batean, eta gure material osoa ere bai. Rokodromoak, han genituen piragua batzuk... guk baturiko diruagaz lorturiko material apurra. Nahiko jota geratu ginen.

Gero, zuek hartu zenuten lekukoa, Iban.

Iban Uribe txebarría: Mendiko jarduerekin lotuta hutsune bat zegoela ikusten genuen eta halaxe animatu ginen. Jai Batzordearen laguntzagaz Iurretako mendi martxa antolatu genuen lehenengoz, eta jendea pozik ikusita aurrera jarraitu genuen. Bazegoen mendi taldea berreskuratzeko gogo bat. Ilusioz gogoratzen ditut garai haiek. Ofizialki sortu genuen elkarteak, mendi federazioan sartu ginen. Dena berria zen guretzat, pozik hartu genuen lekukoa, herrian ondo hartu zutelako Zaldaiz berriro martxan ipintzea.

Mendian ibiltzeko modua aldatu egin da denbora honetan?

I.U.: Garai batean, jendea gehiago joaten zen mendi taldeek antolatutako irteeretara, Euskal Herriko zein kanpoko mendietara. Gaur egun norbera bere kontura edo familian ibiltzen da gehiago, eta ez du mendi taldeen beharrik.

Zer da zuentzat mendia?

I.U.: Lasaitasuna topatzeko leku bat, naturagaz kontaktua izateko leku bat.

A.B.: Mendira bakardadea topatzera joaten naiz askotan. **Mendi bat?**

A.B.: Niretzat Larrano oso berezia da, ahizparen errautsak han daudelako botata.

I.U.: Alluitz gustatzen zait.

**URRUN
IRISTEKO,
GERTU.**

Zetoz eta ezagutu
Andramari
Zomotzakako ikastola



ANDRAMARI
IRAKASLEAK



Larrea auzoa z/g 48340 Zomotza
94 673 29 50 - zomotzak@ikastola.eus
www.andramari-zomotzakako-ikastola.eus



- 0tik 18 urtera arte.
- Bisita pertsonalizatuak.
- 2026/27 matrikulazioa: otsailaren 2tik 13ra.